

ERABAKIA, 2020ko azaroaren 23koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 426 Bulegoko burua lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2020ko urriaren 8ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2020ko urriaren 30ekoa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urtarrilaren 2ko EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAan), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAAan).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Bosgarrena.- Deialdi honetako lanpostua prozesu honen bidez hautatutako funtzionarioa, titularra den lanpostua izendapen askeaz betetzeko artean agertzen da unibertsitateko lanpostuen zerrendan; beraz, kasu honetan aplikatu behar dira Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 50. eta 51. artikulua. Lege horren arabera, lanpostu bati izendapen askearen bidez atxikitako funtzionarioak edonoz aldatu ahal izango dira lanpostu horretatik, eta beren kidego eta eskalako beste lanpostu bati atxikiko zaizkio.

Seigarrena.- Interesatuak parte hartu du beste lanpostu bat aldi batez betetzeko prozesuan, eta lanpostua esleitu zaio. Horregatik, ezin du jarraitu izaten izendapen askeko lanpostuaren titularra eta kendu egin behar da lanpostu horretatik, lanpostua hutsik gera dadin eta behin betiko bete izendapen askeko deialdiaren bidez. Beraz, Erabaki honen bidez esleitu zaion lanpostuari atxikiko da behin-behineko interesatua, bere eskalako lanpostua baita.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Kentzea UGARTE GARCIA DE ANDOIN, Miren Jasone funtzionarioari Materialen Fisika unitaterako Kargudunaren idazkaria lanpostuaren titulartasuna, 2020ko abenduaren 13ko dataz eta deialdi honetako lanpostuan behin behineko atxikipenean ematea, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Atxikipena 2020ko abenduaren 14ko ondorio dataz egitea.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.


Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiogke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko azaroaren 23an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

2020/10/8

Esleipenduna: UGARTE GARCIA DE ANDOIN, Miren Jasone
Lanpostuaren Izena: Bulegoko burua
Lanaldia: Arautua
Eref.: F 426
Zenbatgarrena: 13
Maila: 19
Taldea: C/D
Eskala: Administraria/Administrari laguntzailea
H.E.: 2; 1994ko urriaren 30a
Langunea: EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA
Campus: GIPUZKOA
BE:
Ondorio data: 2020ko abenduaren 14a